



TEATRO
ARRIAGA
ANTZOKIA

Ostiralean estreinatuko da Arriaga Antzokiak denboraldi honetan ekoiztu duen lehenengo ikuskizuna, Manuel de Falla handiaren lanari eskainitako omenaldi musikala eta bisuala

- Ángeles Blancas sopranoak eta Bilbao Sinfonietta orkestrak *El amor brujo* eta *Siete canciones populares españolas* konposizio garrantzitsuak interpretatuko dituzte kantata poetiko eder horretan.
- Barbora Horáková Jolyk, garrantzia hartzen ari den Europako emakume zuzendari onenaren *International Opera Award 2018* saridunak Arriaga Antzokiaren ekoizpen lan propio bat zuzenduko du berriro, duela denbora gutxi *Dido & Aeneas* lanarekin lortutako arrakastaren ondoren.
- Fallaren musikaren goi mailako edertasuna ikuskizunaren erdigunean kokatuta, Oliver Sacks eta Stefan Klein egileen zenbait testu ere modu ezin hobean integratzen dira emanaldian.
- James Rosental eta Ellyn Hebron dantzari ingelesen jarduketak oso une gogoangarriak eskainiko ditu Domenico Billari artista bisualak sortutako eszenografiaren barruan.
- Janiv Oronek “Resonant garden” izeneko musika-tresna bereziarekin egiten duen musika ekarpena eta Sergio Verdek ikuskizun honetarako diseinatu dituen ikus-entzunezko indartsuak dira azpimarratu beharreko beste elementu batzuk.
- Jantziak Oscar Armendariz Lucarinirenak dira, eta argiztapenaren diseinua Arantza Herediaren esku egon da, biak ere Arriaga Antzokiko taldeko kideak eta proiektu hau aurrera eramatea posible egiten duen Arriagako lantalde osoaren ordezkari.
- *El amor brujo/Siete canciones populares españolas* ostiralean, urriaren 4an, estreinatuko da, 19:30ean, eta larunbatean, 5ean, bigarren emanaldia emango da, ordu berean.

Bilbon, 2019ko urriaren 2an.- Arriaga Antzokiak 2019/2020 denboraldiko lehenengo ekoizpen lan propioa aurkeztu du, XX. mendeko lehen erdialdeko Espainiako konposatzaile handienetako batean zentratuz: **Manuel de Falla** (1876-1946). Horrela, Arriaga Antzokiak, kantata poetika forma duen ikuskizun bikaina eramango du eszenara. Cadizeko sortzailearen lan garrantzitsuenetako bitik edaten du, bere maisulan nagusietakoa den *El amor brujo* eta *Siete canciones populares españolas*. Ikuskizun ederraren estreinaldia ostiral honetan, urriaren 4an, izango da, 19:30ean, Arriaga Antzokian. Larunbatean, 5ean, ordu berean, antzokiak bigarren emanaldia jasoko du.

Suitzan bizi den **Barbora Horáková Joly** zuzendari txekiarrak, Europako emakume zuzendari onenaren *International Opera Award 2018* saridunak, zuzenduko du Arriagaren ekoizpen lan propioa, *L'Orfeo*, *I Hate Music* edo duela denbora gutxi *Dido & Aeneas*

lanarekin lortutako arrakastaren ondoren. Azken lan horretan, egileen testuak eta musika konposizio handiak uztartzeko trebezia erakutsi zuen. Orduko hartan Marlowerekin eta Purcellen musikarekin egin zuen, eta oraingo honetan Horáková Jolyk **Oliver Saksen** *Alucinaciones* liburutik eta **Stefan Kleinen** *La belleza del universo* lanetik hainbat testu sartu ditu ikuskizunean, Fallaren musikarekin, ikuskizunaren elementu nagusiarekin, modu paregabean uztartuz.

Izan ere, Fallaren goi mailako musika dago ikuskizunaren erdian, eta gure belarrietara **Ángeles Blancas** soprano madrildarraren ahots bikainaren bitartez helduko da. Bere belaunaldiko soprano garrantzitsuenetako bat da, ahots, tinbre eta musika ezaugarriak eta eszenarako gaitasun handia direla eta. Horren guztiaren ondorioz ezinbesteko bilakatu da nazioarteko opera panoramako programazio askotan.

Musika **Bilbao Sinfonietta** orkestrak interpretatuko du, ibilbide luzea eta emankorra duten eta energiak betetako talde sendoaren talentua abalatzten duten musika-tresna jotzaileek osatutako taldeak. Orkestraren ezaugarri nagusia, musika klasikoa-garaikidea testuinguru desberdinetan barne hartzeko gai den talde anitza eta malgua izatea da. Oraingo honetan, Bilbao Sinfonietta, ikuskizunaren musika zuzendaria den **Iker Sánchez Silvaren** zuzendaritzapean arituko diren 16 musikarik osatuko dute. Arriaga Antzokiak, bertako talentuaren alde egiten duen apustuarekin leial izanik, Irungo zuzendari gaztearen esku jarri du denboraldiko lehenengo ekoizpen lanaren musika zuzendaritza. Sánchez Silva musika ibilbide sendoa ari da eraikitzen, eta dagoeneko orkestra ospetsuak zuzendu ditu, Kataluniako Orkestra Nazionala eta Bartzelonako Hirikoa, Bilboko Sinfonikoa, Euskadiko Sinfonikoa, Asturiaseko Printzerrikoa, Tenerifeko Sinfonikoa, Portoko Casa da Música Sinfonikoa, Bayonne-Côte Basque Orkestra, Concentus Alius Berlín, Berlingo Humboldt Unibertsitateko Orkestra eta Gasteizko Ganbara Orkestra, hain zuzen ere.

Musika ekarpen desberdin eta oso aberasgarri gisa, **Janiv Oron** musikariaren partaidetza ere aipatu behar da. Orkestran bertan sartuta, ohikoa ez den musika-tresna dardarkaria joko du, "Resonant Garden" izenekoa, aparatu hibridoa, elektro-akustikoa, erritmoetatik eta efektuetatik soinu-geruza trinkoak osatzeko aukera ematen duena.

Mugimenduak eta bisualak

Gehigarri barik berezko edertasuna duen musikaz gain, ikuskizun honek, Fallaren lanak hartzen duen gune nagusia ez nahasteaz aparte, ikuskizunari dotorezia eta indar bisuala gehitzen dioten elementuak jasotzen ditu. Alde batetik, **James Rosental** eta **Ellyn Hebron** dantzari britainiar gazteen emanaldia azpimarratu behar da. Dantza eta gorputz adierazpen une ezin ederragoak oparituko dizkigute **Domenico Billari** artista bisualak instalazio moduan diseinatu duen eszenografia soil baina irudimenez betean.

Ekoizpen lanaren oinarritzko beste elementu bat, **Sergio Verde** karrantzarrak (bilbotarra adopzioz) sortutako ikus-entzunezkoak dira. Bere ibilbide profesionala argazkigintzaren, argazkien ukitzearen, bideoaren eta diseinu grafikoaren alorretan eraman du aurrera. Proiekzioek itxura bisual indartsua eta aldi berean iradokigarria ematen diote ikuskizunari, ametsen mundutik amesgaiztoetara igarotzen diren irudi poetikoei esker, haluzinazioetatik ere igarotzen direlarik. Haluzinazio horiek Fallaren mundu mitiko eta ukiezina, eta gu bizi garen mundu arrazionalago eta ukigarriagoa aurrez aurre kokatuz sortzen dira.

Halaber, argiek ere sendotzen dute errealitate bi horien arteko kontrastea, gure esentziaren sakonerara eramaten gaituzten une poetikoak erakutsiaz. Honela, ikuskizunaren irudi indartsuak kutsu industrialak erakusten du, besteak beste **Arantza Heredia** argiztapenarekin egindako lanari helduta. Beltzen eta zurien arteko jokoak eta argi gogorrak dira nagusi. **Oscar Armendariz Lucarinik** diseinatutako jantziak ere lagungarriak dira laurogeiko hamarkadako inspirazioa duen industria ukituko estetika gogor hori eraikitzeko. Arriaga Antzokiko taldeko kide diren Heredia eta Armendariz, bakoitza bere arloan, ekoizpen lan propioa aurrera eramateko lan egiten duen Arriagako giza talde osotik proiektu honetan ikusten diren buruak dira.

El amor brujo Gaztea

Gaur, asteazkenean, urriaren 2an, Entsegu Orokorra egingo da 19:30etik aurrera. Arriaga Antzokiak emanaldi hori baliatzea erabaki du, 30 urtetik beherakoei oso opari berezia egiteko, “**El amor brujo Gaztea**” ekimena aurrera eramanez, beste ekoizpen batzuetan, *L’Orfeo*, *War Requiem*, *Johannes Passion*, *Macbeth* edo *Dido & Aeneas* lanetan egindako ekintza arrakastatsua errepikatuz. Ekimenaren helburua arte eszenikoak gazteei hurbiltzea eta, aldi berean, Arriaga Antzokiaren eta gazteen arteko elkarrekintza sustatzea da, Arriaga Facebooken, Twitterren edo Instagramen jarraitzen duten 30 urtetik beherakoei gaur, asteazkenean, urriaren 2an, 19:30etik aurrera, egingo den Entsegu Orokorra dohainik joateko aukera emanez. Beraz, ikuskizun handiaz gozatzeko aukera paregabea baliatu gura dutenek bi betekizun hauek baino ez dituzte bete beharko: 30 urtetik beherakoa izatea eta Arriaga Antzokiaren jarraitzaile izatea, edo bilakatzea, bere Sare Sozialetan.

Doako sarrera lortzeko (pertsona bakoitzeko bat), interesdunak antzokiko txarteldegietara edo Informazio Bulegora hurbildu beharko dira, NAN erakutsi eta sare sozialetan Arriaga Antzokiaren jarraitzaile direla egiaztatu. Sarrerak banatuko dira, leku kopurua agortu arte.

ARRIAGA ANTZOKIRAKO SARRERAK

- 14 – 42 euro artean (beherapenekin)
- Salgai www.teatroarriaga.eus helbidean, 946 850 850 telefonoaren bidez eta antzokiko leihatilan, alde zuzeneko salmenta ordutegian.

El amor brujo / Siete canciones populares españolas **Manuel de Falla**

Musika: **Manuel de Falla**
Testuak: **Oliver Sacks, Stefan Klein**

Musika zuzendaritza: **Iker Sánchez Silva**
Eszena zuzendaritza: **Barbora Horáková Joly**

Sopranoa: **Ángeles Blancas**
Orkestra: **Bilbao Sinfonietta**
Koreografoa eta dantzaria: **James Rosental**
Dantzaria: **Ellyn Hebron**
Elektronika / Resonant garden: **Janiv Oron**

Ikus-entzunezkoak: **Sergio Verde**
Instalazioa / Artista bisuala: **Domenico Billari**
Jantziak: **Oscar Armendariz Lucarini**
Argiztapena: **Arantza Heredia**

Maisu errepikatzailea: **Iñaki Belasko**

Arriaga Antzokiaren ekoizpen lan berriaren estreinaldia
2019ko urriak 4 eta 5

Informazio gehiago:
Komunikazioa – ARRIAGA ANTZOKIA
Jon Rozadilla Urrutia – 652 738 307
comunicacion@teatroarriaga.eus
www.teatroarriaga.eus